



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 31

121. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00014. Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena (2. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—10-22/MOC-00099. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenaren Administrazio Kontseilutik legezko ekintzak abiaraz ditzan Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren aurka, horrek eros eta ordain dezan Albyn Medical SLk 2022ko maiatzaren 7an sinatutako akordioaren bidez erositako maskaretatik soberan gelditutakoen stocka. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (4. or.).

—10-22/MOC-00100. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan. Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztu du (6. or.).

—10-22/MOC-00102. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (7. or.).

—10-22/MOC-00103. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, Foru Komunitatean barnako mugikortasuna erraztuko duena. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (8. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-22/LEY-00014. Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2022ko urriaren 26an hartutako Erabakiaren bidez, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzararekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena**

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legeak, 14. artikuluko 7. apartatuan, baimena eman zion Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri (SODENA) 1.700.000 euroko mailegua emateko Parque de la Naturaleza de Navarra SARI (PARQUENASA). Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLUK eskatu du baimen hori handitu dadila, beste 1.500.000 euroko mailegua eman diezaion Nafarroaren Garapen Sozietatea SLk Parque de la Naturaleza de Navarra SARI. Eskaera justifikatzeko, adierazi du parkea lehengoratzeko jarduketak batzuk egin behar direla aurtan, udan izandako sutearen ondorioz, eta jarduketak horiek sartzen direla 2024an amaituko den parkean egin beharreko inbertsioen planaren barruan.

Halaber, Nafarroaren Garapen Sozietatea SLK adierazi du komeni dela SODENAK Parque de la Naturaleza de Navarra SARI emandako eta eman beharreko maileguez interesak sor ditzatela, bakar-bakarrik, mailegu-hartzaileak etekinak sortzen dituztean; halaxe xedatu baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluko 3. apartatuan. Eskaera justifikatzen da finantzaketa egokitu egin behar delako PARQUENASAK sortutako baliabideetara.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14. artikulua aldatzea.

**Artikulu bakarra.** 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzea.

**Bat.** Aldatzen da 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14.7 artikulua, eta hauxe da testu berria:

“7. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean, 75. artikuluko 3. apartatua eta 82 ter artikuluko 2. apartatua xedatutakoarekin bat, baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri 2022an mailegu eta abal eragiketa berriak egiteko, bietarik edozein, Parque de la Naturaleza de Navarra SAren, gehienez ere 3.200.000 euroko zenbatekoa izanen dutenak”.

**Bi.** 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14. artikuluari 8. apartatua eransten zaio. Hona hemen haren testua:

“8. Bat etorruta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluko 3. apartatua xedatutakoarekin, baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, alda ditzan emandako maileguen interes-tasak eta finka ditzan Parque de la Naturaleza de Navarra SAri eman beharreko maileguen interes-tasak. Interes horiek sortuko dira, bakar-bakarrik, mailegu-hartzaileak ekitaldian emaitza positiboak lortzen dituenen.

Emandako maileguen interes-tasen aldaketak ez du eraginik izanen, inola ere, mailegu horietan jada sortutako interesetan”.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-22/MOC-00099. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Sodenaren Administrazio Kontseilutik legezko ekintzak abia-raz ditzan Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren aurka, horrek eros eta ordain dezan Albyn Medical SLk 2022ko maiatzaren 7an sina-tutako akordioaren bidez erositako maskaretatik soberan gelditutako-en stocka.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Sode-naren Administrazio Kontseilutik legezko ekintzak abiaraz ditzan Nafarroako Enpresarien Konfede-razioaren aurka, horrek eros eta ordain dezan Albyn Medical SLk 2022ko maiatzaren 7an sinatu-tako akordioaren bidez erositako maskaretatik soberan gelditutakoen stocka.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamari-que jaunak, Legebil-tzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eza-rritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

2020ko maiatzaren 7an, ETEentzat, mikroETEentzat eta langile autonomoentzat babes-ekipamendu indibidualak (BEI) erosteko lankidetzarako eta zubi finantza-laguntzarako hi-

tzarmena sinatu zuten CENek, Sodenak eta Albyn Medical SLk.

Hitzarmen hori sinatu baino lehen, 2020ko api-riaren 22an, Sodenako administrazio-kontseiluak zubi-mailegu bat eskuragarri jartzea onetsi zuen, bi milioi euro artekoa, Albyn Medical SL merkatari-tza-sozietatearen eta CENen esku-hartzearen bidez maskarak eta beste zenbait BEI erosteko.

2020ko apirilean, eskaria egiteko hileroko beharren estimazio bat helarazi zien CENek akor-dioaren sinatzaile izanen zirenei; eskariak hiru hilei zegozkien beharrak estali behar zituen, hain zuzen ere. Benetako datua da enpresek CENi egindako erosketak 2020ko apirilera estimazioa baino askoz ere txikiagoak izan zirela. Maskara kirurgikoen beharraren hasierako estimazioa 1.464.444 alekoa zen, baina enpresek 137.150 baino ez zituzten erosi. CENek, bere aldetik, zenbatetsi zuen 623.847 FPP2 maskara behar zirela, baina 252.800 soilik saldu ziren.

Egoera horren ondorioz, kostu-prezioan, gutxi gorabehera, 1,8 milioi euroko balioa duen stock bat sortu da, CENek erosi ez zuena, dirudienez, ez zuelako behar beste eskari irmo jaso elkartuta-ko enpresen aldetik.

CENek zenbatetsi zuen 2.149.752 maskara behar zirela, Albyn Medical SLk 2.136.700 esku-ratu zituen, eta CENek 389.950 besterik ez zituen erosi.

Edonola ere, Parlamentura igorritako doku-mentazioa aztertuta, garbi ikusten da 2020ko uztailaren 1az geroztik –hau da, hitzarmena sina-tu eta hilabete gutxira– Albyn Medical SLren ordezkariak bere kezka agertu zuela, mezu elek-

troniko batean adierazi baitzuen kezkatuta zegoela “industria-lerroaren” (CENek ordezkatzen zituen enpresak) “eskari urriarekin”, eta eskatu zuen eseri eta “erabakiak hartu” beharra zegoela. Sumatzen zen jada operazioa gaizki zihoala. Ordurako 1.200.000 IIR maskara zeuden, eta enpresetatik 37.000 baino ez ziren eskatzen, – “erritmo honetan, ia 3 urte beharko ditugu hori kontsumitzeko”, zioen Albyn Medicalen ordezkarriak–, eta 150.000 FFP2 maskara zeuden, eta beste 600.000 zeuden iristeko –“erritmo honetan, ia 12 urte”–.

Orobat, jakin dugu Sodenako administrazio-kontseiluan ere, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran eta martxoaren 26an egindakoan, lehen bilkurako aktan kezka agertu zela “ETEentzat, mikroETEentzat eta langile autonomoentzat babes-ekipamendu indibidualak (BEI) erosteko 2020ko maiatzaren 7ko lankidetzarako eta zubi finantza-laguntzarako hitzarmenak eta horren interpretazioari buruz Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin zeuden desadostasunek eragindako arazoarekin”; eta, bigarrenean, jakinarazi zela kontseiluko lehendakariak hala eskatuta, txosten juridiko bat eskatu zitzaiola Garrigues abokatu-enpresari.

2021eko apirilean eman zuten txostena, eta hor argi eta garbi ondorioztatu zen “Albyni stocka erostera derrigortuta geldituko zela CEN”, eta proposatzen zen enpresa publikoak “Albyni eskatzen ahal ziola bete zitezela CENek hitzarmenean bere gain hartutako betebeharrak” edo “CENen ez-betetzea larritzat edo funtsezkotzat jo daitekeen neurrian, kontratua suntsiaraztea”; horrek gaitasuna emanen lioke zorra itzultzea exijitzeko Albyni, eta, gainera, Sodenari eragindako kalte-galerak ordaintzea ere exijitzeko.

Txosten horretatik aurrera, haren edukia bere egin zuen Sodenak. Horren erakusgarri da sozietate publikoko zuzendari kudeatzaileak 2021eko apirilaren 20an CENi igorritako gutuna, hor exijitzen baitzion bete zitzala bere betebeharrak, eta, ildo horretatik, eskatu zion “erosi eta ordaindu zezala erosteko zegoen BEI stock osoa”. Era berean, administrazio-kontseiluko lehendakari eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak beste gutun bat igorri zion CENen lehendakariari, 2021eko ekainaren 25ean. Gutun horretan, Irigoyen andrearen “apirilaren 20ko gutunean” esandakoa berresten zuen Sodenak, baina, “gaia sakonki eztabaidatzen hasteko asmorik gabe” gonbidapena egiten zieten “negoiazio-fase bat hasteko, kontratuari irtenbide egoki bat bilatzeko adostasun bat lortze aldera”.

CENekin izandako negoziazio-fase horretan, Sodenak zenbait proposamen egin dizkio, egoera desblokeatzeko aukera emanen zuen akordio bat lortu ahal izateko:

– 2021eko iraila: CENi eskaini zitzaion bien artean adostutako pertsona bat izendatzea stocari irteera emateko proposamenak egin zitzaion.

– 2021ko azaroaren 3a: beste bilera bat egin zen CENekin, material ibilgetuari irteera emateko une hartan posible zen prezioan.

– 2021eko abenduaren 13a: CENek ezezkoa eman zion irtenbide bat bilatze aldera pertsona/abokatu bat izendatzeari.

– 2022ko martxoa: beste bilera batean, CENek idazki bat eman zien Sodenaren ordezkariei, zeinen bidez Sodenari eta Albyn Medical SLri exijitzen baitziren “berariaz eta zalantzarik gabeko moduan uko egiteko hitzarmenaren ondorioz CENekiko zegozkiekeen eskubide, nahi eta edonolako ekintzen erreklamazio guztiei”, eta adierazten zuten “ez zela nahikoa Sodenak bakarrik uko egitea horiei. Uko egiteak baterakoa izan behar zuela, Sodena eta Albynena”.

– 2022ko martxoaren 22a: beste bilera bat CENekin; Sodenak proposatu zuen beste hitzarmen bat sinatzea, zeinetan alderdiek adieraziko zuten stock soberakina hirugarrenei besterentzeko interesa zutela.

– 2022ko apirilaren 25a: stocka besterentzeko hitzarmen berri baten proposamenari erantzunez (proposamenean aurreikusten zen, azkenean maskaren stocka ez bazen osoki edo partzialki saltzen, Sodenak, ordainean emate gisa, haien gaineko jabetza hartuko zuela), CENek adierazi zuen 2020ko maiatzaren 7ko hitzarmenetik ez zela sortu inolako betebeharrak Konfederazioarentzat, eta, gainera, berriz exijitu zuen “eskubideei uko egitea, alderdiek aitortu dezaten ez dutela elkarri erreklamatzeko ezer 2020ko maiatzaren 7ko lankidetzak-hitzarmenaren indarrez”.

– 2022ko maiatzaren 11: Sodenako administrazio-kontseiluko lehendakariak CENi jakinarazi zion erreklamazio posible guztiei uko egitea “marra gorri onartezina” zela.

– 2022ko irailaren 15: CENek gutun bat igorri zion Sodenari, eta 2022ko apirilaren 25ean igorritako proposamenak berretsi zituen; hau da, sine qua non baldintza gisa mantentzen zuten eskubide guztiei uko egitea.

Eta horixe da egoera gaur egun. Sodenak ahal legin ugari egin ditu arlo judizialaz kanpoko irtenbide bat lortzeko, baina CENek balizko lege-ekintzei

uko egitea exijitzen du, 2020ko maiatzaren 7ko hitzarmenetik sor litezkeen betebeharrei aurre egin beharrik ez izateko, egitate eztabaidaezina baita Konfederazioak 2.149.752 aletan zenbatetsi zuela maskaren beharra eta 389.950 soilik erosi zituela –azkenean, 1,8 milioi euroko galdera eragin dio horrek Sodenari–.

Esandakoagatik guztiagatik, ondoko erabaki hau hartzea proposatzen dugu:

Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premia-tzen du Sodena enpresa publikoaren administrazio-kontseiluan dituen ordezkariak sustatu dezaten administrazio-kontseiluak erabaki bat hartzea

dagozkion ekintza judizialak hasteko Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari erreklamatzeko bete ditzala Albyn Medical SLk erositako maskaren stock soberakina erosteko eta ordaintzeko betebeharrak, eta, hala badagokio, kalte-galerak ere erreklamatzeko, ETEentzat, mikroETEentzat eta langile autonomoentzat babes-ekipamendu individualak (BEI) erosteko 2020ko maiatzaren 7ko lankidetzarako eta zubi finantza-laguntzarako hitzarmenetik sortutako betebeharrak diren heinean.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **10-22/MOC-00100. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan.**

### *JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2022ko azaroaren 3ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

1990ean Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa onetsi zen, eta horrek ekarri zuen derrigorrezko hezkuntza ezartzea 16 urte arteko ikasleentzat. Horren ondorioz, ordura arte OHOk zortzigarren mailara arteko eskolak ematen zituzten eskualdeko ikastetxe publiko askotan Lehen Hezkuntzako seigarren mailara artekoak soilik ematen hasi ziren, eta, hala, ikasleen erreferentziazko instituturako igarotzea bi ikasturte aurreratu zen. Hori ez da txikikeria, aintzat hartzen badugu gaur egun zer adinekin hasi ohi den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen maila.

Azken urteotan, Nafarroako zenbait herrik – Lerin, Andosilla edo Gares, esaterako– Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari eskatu diote DBHko lehen zikloa ezar dezaten bertako ikastetxe publikoetan. Eskakizun horrek, oro har, tokiko hezkuntza- eta gizarte-erkidego eta erkidego politiko bakoitzaren babes zabala du; izan ere, gehienak daude ados ikasleak gertueneko ingurunean ahalik eta denbora gehien egotearen komenigarritasunari buruz. Jarrera hori aldezteko askotariko argudioak eman dira: hezkuntzakoak, pedagogikoak, garraioaren segurtasunari buruzkoak eta populazioa finkatzearen eta gizarte- eta lurralde-kohesioaren aldekoak.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin, bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

## **10-22/MOC-00102. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan.**

### *JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan.

2022ko urriaren 27ko kontroleko osoko bilkuran, Nafarroako Gobernuak, Garapen Ekonomikoko kontseilariaren bitartez, Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako galdera bati erantzun zion. Galdera zen Espainiako Gobernuak gas

galdara komunitarioak dituzten jabeen erkidegoentzat ezarritako hobarien osagarriak ezartzeko beharrari buruzkoa.

Zehazki, galderaren xedea zen zehaztea Gobernuak asmorik ba ote duen Nafarroan gasoliozko galdara komunitarioa konpartitzen duten jabeen erkidegoak edo kooperatibak osatzen dituzten zortzi milatik gora etxebizitzetara laguntzeko, gas galdara indibidualen edo komunitarioen erabiltzaileentzat ezarritako hobarietatik kanpo geratzen baitira.

Kontseilariaren erantzunaren ardatza izan zen gas tarifa hobaridunaren prestazioen deskribapena, baina ez zuen aipatu gasoliozko galdaren erabiltzaileen berogailu-fakturei aurre egiten laguntzeko inongo neurririk.

Pertsona horiek guztiek inongo laguntzarik gabe aurre egin beharko diote gasolioaren prezioaren igoera handiari negu honetan, eta, gure ustez, egoera hori bidegabea eta desberdinkeriazkoa da, praktikan laguntza publiko orotatik bazterturik gelditzen baitira, prezio altuak eta jabeen erkidegoen zorpetze- eta ez-ordaintzeen arriskua nagusi diren egoera honetan. Hori guztia ikusirik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Nafarroako Gobernua premiatzea lehenbailehen abiaraz dezan laguntza-lerro bat gasoliozko galdara komunitarioak dituzten jabeen erkidegoentzat, bai eta berogailurako gasolioa kontsumitzen duten partikularrentzat ere, mila litrotik beherako biltegiak badituzte, fakturen igoera handia arintzeko eta pertsona horiek bidegabe ki bazterturik gera ez daitezen.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **10-22/MOC-00103. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premia-tzen da garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, Foru Komunitatean barnako mugikortasuna erraztuko duena.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, Foru Komunitatean barnako mugikortasuna erraztuko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mugikortasun jasangarri eta erosoago baterantz aurrera egiteak lehentasuna izan beharko luke Gobernu honentzat. Alde batetik, ingurumenaren duen eraginagatik, eta, bestetik, Nafarroaren lurralde kohesiorako.

Horregatik, garraio-txartel bateratua sortzea konponbide bat litzateke, nafarrei erraztu eginen bailieke erkidegoko edozein tokitara joan ahal izatea ibilbide motzeko eta ertaineko trenetan, autobusez, hiriartekoetan eta abar. Hala, auto partiku-

larren erabilera murriztuko litzateke eta lurraldea kohesionatuago egonen litzateke, Nafarroako iparretik hegora txartel bateratu batekin joateko aukera egonen bailitzateke. Herrietatik hiriburura datozenen mugikortasuna erraztuko luke horrek, bai hiriburura iristeko bai hirian barrena mugitzeko.

Gasolinaren eta dieselaren prezio neurrigabearen edo KPlaren eraginez, gizarteak ahalegin bat eskatzen dio Gobernuari. Garraio publikoan mugitzeko erraztasunak ematea eta behar duten gizarte-taldeentzako txartelak ematea behar-beharrezko neurria da, bai ingurumenagatik bai egungo egoera ekonomikoagatik.

14 eta 30 urte bitarteko nafarrek soilik dute ehuneko 20ko deskontua gure erkidegoko hiriarteko garraioan. Mugikortasun erraz eta erosoagoa lortzeko neurriak abian jartzeko, beharrezkoa da foru administrazioek hiri barneko eta hiri arteko garraiorako irisgarritasuna hobetzea, egungo tarifak murriztea eta erabilgarri dauden zerbitzuak hobetzea, eta hor sartzen da gure erkidegoan dauden garraio bide publiko desberdinen arteko koordinazioa.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Gobernuak premia-tzea heldu den urtean, 2023an, garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, erkidegoan barnako mugikortasuna erraztuko duena Nafarroan bat egiten duten garraio bide guztien artean.

2. Nafarroako Gobernuak premia-tzea txartel bateratuari hobariak ezar diezazkion behar duten gizarte-talde guztientzat.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez